

Xedapen Orokorrak

JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA

6243

6/2006 LEGEA, abenduaren 1eko, Euskal Herriko Poliziari buruzko Legearen bigarren aldaketarena.

Eusko Legebiltzarrak 6/2006 Legea, abenduaren 1eko, Euskal Herriko Poliziari buruzko Legearen bigarren aldaketarena, onartu duela jakinarazten zaie Euskadiko herritar guztiei.

ZIOEN AZALPENA

Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren 17. artikuluan ezarritako eskumena erabiliz eman zen Euskal Herriko Poliziari buruzko uztailaren 17ko 4/1992 Legea. Lege horren bidez, Ertzaintzako langileen lan-bal-dintzak zehatzeko ordezkari eta partaidetzaren araudia ezarri zen. Araudi horrek funtsezko ezberdintasunak ditu Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoei arlo honetan aplikatzen zaien araudiarekin konparatuz gero.

Euskal Herriko Poliziaren Legeak, 103. artikuluan, organo bat ezarri du, eta organo horretan, lan-bal-dintzak ezartzeko parte-hartzeaz haratago, lan-bal-dintzei buruzko benetako negoziazioa egiten da Administrazioaren eta arlo honetako erakunde ordezkarien artean.

Era berean, Ertzaintzako kideei aitortzen die bakoitak aukeratzen dituen sindikatu, federazio edo konfederazio sindikaletan afiliatzeko eskubidea, nork bere interes profesional, ekonomiko eta sozialak ordezkatu, defendatu eta sustatzeko bidea izan dezan.

Testuinguru horretan, Euskal Herriko Poliziaren Legeak erakunde sindikalei aukera ematen die, atalak sortzen dituztenean, ordezkariak izenda ditzaten atal horrietarako, eta, horrezaz gainera, hautatutako ordezkarien bermeen eta eskubideen erregimen bera erabiltzeko aukera ematen zaio ordezkariak lortu dituzten erakunde sindikalek izendatutako ordezkari kopuru jakin bati. Kasu bakoitzean egiaztaturiko afiliazio-mailaren arabera banatuko da kopuru hori, martxoaren 16ko 50/1993 Dekretuaren zortzigarren kapituluan ezarritako prozeduraren arabera. Ertzaintzako funtzionarioen ordezkari sindikalaren hauteskundeak, Ertzaintzaren Kontseiluaren osaera eta erakunde sindikalei dagozkien ordezkariak hautatzeko bidea arautu ziren aipatutako dekretu horren bitartez.

Esleipen-sistema eta ordezkari sindikalaren kopurua aldatzea, horiexek dira, hain zuzen ere, lege-aldaketa

Disposiciones Generales

PRESIDENCIA DEL GOBIERNO

6243

LEY 6/2006, de 1 de diciembre, de segunda modificación de la Ley de Policía del País Vasco.

Se hace saber a todos los ciudadanos y ciudadanas de Euskadi que el Parlamento Vasco ha aprobado la siguiente Ley: Ley 6/2006, de 1 de diciembre, de segunda modificación de la Ley de Policía del País Vasco.

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

La Ley 4/1992, de 17 de julio, de Policía del País Vasco, dictada en ejercicio de la competencia establecida en el artículo 17 del Estatuto de Autonomía del País Vasco, dispuso una regulación acerca de la representación y participación en la determinación de las condiciones de trabajo del personal de la Ertzaintza que contiene diferencias sustanciales respecto al tratamiento que recibe esta materia en la normativa de aplicación a los Cuerpos y Fuerzas de Seguridad del Estado.

La Ley de Policía del País Vasco determina en su artículo 103 la existencia de un órgano en el que, más allá de la participación en el establecimiento de las condiciones de trabajo, se lleva a cabo una verdadera negociación sobre esta materia entre la Administración y las organizaciones representativas en este ámbito.

Asimismo, reconoce a los miembros de la Ertzaintza el derecho a afiliarse a los sindicatos, federaciones o confederaciones sindicales de su elección, para la representación, defensa y promoción de sus intereses profesionales, económicos y sociales.

Es en este contexto en el que la Ley de Policía del País Vasco, además de prever la posibilidad del nombramiento de personas delegadas por parte de las organizaciones sindicales para las secciones que en su caso constituyan, establece la aplicabilidad del mismo régimen de garantías y derechos de los representantes electos a un número determinado de personas delegadas designadas por las organizaciones sindicales que hubiesen obtenido representantes, distribuido en atención al nivel de afiliación que se acredite en cada caso, a través de un procedimiento desarrollado en el capítulo octavo del Decreto 50/1993, de 16 de marzo, por el que se regularon las elecciones a representantes sindicales de los funcionarios de la Ertzaintza, la composición del Consejo de la Ertzaintza y el procedimiento para la determinación de los delegados que correspondan a las organizaciones sindicales.

Es precisamente el cambio del sistema de asignación y del número de estas personas delegadas sindicales el

honen xede. Adierazi denez, orain arte indarrean egon den sistemaren ordezkari-kopurua sindikatuen ezarpen-mailaren araberakoa zen, erakunde sindikal bakoitzak zuen afiliazio-maila aintzakotzat hartuta. Afiliazio-maila hori egiazatzeko, prozedura bat erabiltzen zen ahalik eta ondoen uztaututa egon zitezen, batetik, objektibotasuna eta inpartzialtasuna, eta, bestetik, afiliazio sindikalaren datuen pribatasuna gordetzeko betekizuna. Lan Harremanen Kontseiluak proposaturik izendatutako hiru pertsonak osatzen zuten batzorde bat ematen zitzzion eginkizun hori.

Legeak eta aipaturiko dekretuak eraturiko sistema egokia eta zuzena dela erakusten da erabaki judizialetan eta bestelako adierazpenetan, baina, hala ere, egia da, dekretu horretatik hona hamahiru urte igaro badira ere, ezin izan dela ordezkari sindikal esleipen eta izendapenerako afiliazioa ziurtatzeko mekanismoa praktikan jarri, zaitasun eta eragozpen praktikoak agertzen baitira argi eta garbi, erakunde sindikaletako bakoitzak dituen afiliazio-datuak egiazkoak diren ikusteko orduan.

Testuinguru horretan, eta egoera hori jarduera sindikalaren garapen normalerako oztopoia izan ez zedin, horixe baita helburu bakarra, ordezkari sindikalaren kopurua hauteskunde-audientziaren arabera esleitzea erabaki zuen bien bitartean Herrizaingo Sailak. Horixe da, hain zuzen ere, gaur egun oraindik dugun egoera, eta erakunde sindikalek ez dute jokabide horretan oztoporik jarri.

Aldaketa honen bidez, bien bitarteko egoera hori amaitzen da, eta behin betiko finkatzen da ordezkari sindikalaren kopurua esleitzeko sistema. Horrela, hauteskunde-barruti bakoitzari dagokionez, ordezkarien bat lortu duten erakunde sindikalei dagokie izendapena, betiere hauteskundeetan eskuratutako emaitzan oinarriturik, ez beste ezertan.

Artikulu bakarra.— Euskal Herriko Poliziari buruzko uztailaren 17ko 4/1992 Legearen 100. artikulua honela idatzita geratu da:

«1.— Erakunde sindikalek, sindikatu-atalak sortzen dituztenean, ordezkariak izenda ditzakete atal horietarako.

2.— Eskubide horri kalterik egin gabe, eta lege honen 101. artikuluan ezarritako berme eta eskubideen erregimenaren aplikazioaz baliatze-ko bakar-bakarrik, hauteskunde-barrutiei dagokienez ordezkariak lortu dituzten sindikatuek, aurreko artikuluak jarritakoaren arabera, ordezkari-kopuru jakin bat izango dute hauteskunde-barrutietako bakoitzean, alegia, 250 funtzionarioko bina ordezkari, eta, hala badagokio, beste ordezkari bat ere bai, geratzen den hondarrei dagokienez.

3.— Ordezkaritza proporcionalaren sistema erabilita, erakunde sindikal bakoitzari hautes-

objeto de la presente modificación legal. Como ha quedado expresado, en el sistema hasta ahora vigente la determinación del número de personas delegadas se hacía depender del grado de implantación, según el nivel de afiliación de cada organización sindical, para cuya acreditación se arbitraba un procedimiento que pretendía conjugar la objetividad e imparcialidad con la preservación de la privacidad de los datos de afiliación sindical, encargándose tal función a una comisión de tres personas designadas a propuesta del Consejo de Relaciones Laborales.

Pues, bien, no obstante los pronunciamientos judiciales y de otro tipo que avalan la pertinencia e idoneidad del sistema configurado por la ley y el decreto citado, lo cierto es que, a pesar de los trece años que han transcurrido desde la aprobación de esta última norma, no ha resultado posible la puesta en práctica del mecanismo de acreditación de la afiliación para la atribución y nombramiento de las personas delegadas sindicales, dadas las dificultades prácticas que se han evidenciado a la hora de proceder a la verificación de los datos de afiliación de cada una de las organizaciones sindicales.

Ante esta tesitura, y con el único propósito de que esta coyuntura no supusiera un obstáculo que dificultara el normal desarrollo de la actividad sindical, el Departamento de Interior adoptó la decisión de asignar transitoriamente el número de personas delegadas sindicales en función de la audiencia electoral, situación que es la actualmente existente y que no ha sido objeto de controversia por parte de las organizaciones sindicales.

Con la presente modificación se pone fin a esta situación de transitoriedad y se consolida de forma definitiva el sistema de asignación del número de personas delegadas sindicales que corresponde designar a las organizaciones sindicales que hayan obtenido algún representante, respecto de cada circunscripción electoral, basado exclusivamente en el resultado electoral obtenido.

Artículo único.— El artículo 100 de la Ley 4/1992, de 17 de julio, de Policía del País Vasco, queda redactado como sigue:

«1.— Las organizaciones sindicales pueden nombrar personas delegadas para las secciones sindicales que, en su caso, constituyan.

2.— Sin perjuicio de ese derecho, y a los solos efectos de aplicación del régimen de garantías y derechos previsto en el artículo 101 de esta ley, las organizaciones sindicales que hubieran obtenido representantes, respecto de cada circunscripción electoral, conforme a lo establecido en el artículo anterior, dispondrán de un número de personas delegadas en cada una de ellas equivalente a dos por cada 250 personas funcionarias y una más por el resto resultante, en su caso.

3.— Mediante el sistema de representación proporcional, se atribuirá a cada organización sin-

kunde-barruti bakoitzean dagokion ordezkari-kopurua esleituko zaio, ordezkariak aukeratzeko hauteskundeetan hautagai-zerrenda bakoitzak hauteskunde-barruti bakoitzean eskuratutako boto-kopurua kontuan hartuta, eta ondoko eragiketaren arabera: ordezkariak lortu dituzten era-kunde sindikalek barrutian eskuratutako boto guztiengoa kopurua zati izendatu beharreko ordezkarien kopurua. Sobera geratutako postuak, halakorik egonez gero, erakunde sindikalei esleitu-ko zaizkie, handienetik txikienerako hurrenkeran, bakoitzak lorturiko gainerako botoen arabera.

4.- Ordezkariak aukeratzeko hauteskundeen emaitzen iragarporen berri jendaurrean jakinaztzen den egunetik hasita, ondorengo hogeita hamar egunetan izendatu beharko dituzte era-kunde sindikalek ordezkariak; ondoko hauak izan daitezke ordezkariak: kidegokoak izan eta zerbitzu-egoeran edo bigarren jarduerako egoeran ari diren karrerako funtzionarioak, edo, bestela, prestakuntza-ikastaroa gainditu eta praktika-aldian ari diren funtzionarioak».

XEDAPEN IRAGANKORRA

Baldin eta lege hau indarrean jartzen den egunera-ko sindikatuen ordezkariak ez badira izendatu ordezkariak aukeratzeko egindako azken hauteskundeen emaitzen iragarpena jendaurrean jakinarazi zen egunean indarrean zegoen prozeduraren arabera, lege honetan ezarritakoaren arabera zehaztuko da sindikatuen ordezkarien kopurua eta izendapena.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Honen bidez, martxoaren 16ko 50/1993 Dekretuaren (urriaren 11ko 392/1994 Dekretuak aldatua) VIII. kapitulua indargabetuko da, dekretu horretan baino taude araututa bai Ertzaintzako funtzionarioen ordezkari sindikalaren hauteskundeak, bai Ertzaintzako Kontseiluaren osaera, bai eta erakunde sindikalei dagozkien ordezkariak hautatzeko prozedura ere.

AZKEN XEDAPENA

Lege hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Beraz, Lege honi men egiteko eta men eginarazteko agintzen diet, norbanako zein agintari direla, Euskadi-ko herritar guztiei.

Vitoria-Gasteizen, 2006ko abenduaren 4an.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

dical en cada circunscripción electoral el número de personas delegadas que corresponda, en atención al número de votos obtenido por cada candidatura en cada circunscripción electoral en las elecciones a representantes, de conformidad con el cociente que resulte de dividir el número total de votos obtenidos en el mencionado ámbito por las organizaciones sindicales que hubieran obtenido representantes, por el del número de personas delegadas que corresponda designar. Los puestos sobrantes, en su caso, se atribuirán a las organizaciones sindicales, en orden decreciente, según el resto de votos de cada una de ellas.

4.- La designación de las personas delegadas por las organizaciones sindicales se efectuará dentro de los treinta días siguientes a aquél en que se haga pública la proclamación de los resultados de las elecciones a representantes, debiendo recaer entre personas funcionarias de carrera del Cuerpo en situación de servicio activo o segunda actividad o personas funcionarias en prácticas que hubieran superado el curso de formación y se encuentren desarrollando el período de prácticas».

DISPOSICIÓN TRANSITORIA

En el supuesto de que en la fecha de la entrada en vigor de esta ley, no hubiesen sido designadas las personas delegadas sindicales conforme al procedimiento vigente en la fecha en que se hizo pública la proclamación de los resultados de las últimas elecciones a representantes celebradas, la determinación del número de personas delegadas sindicales y su designación se efectuará conforme a lo establecido en esta ley.

DISPOSICIÓN DEROGATORIA

Queda derogado el capítulo VIII del Decreto 50/1993, de 16 de marzo, por el que se regulan las elecciones a representantes sindicales de los funcionarios de la Ertzaintza, la composición del Consejo de la Ertzaintza y el procedimiento para la determinación de los delegados que correspondan a las organizaciones sindicales, modificado mediante Decreto 392/1994, de 11 de octubre.

DISPOSICIÓN FINAL

La presente ley entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Por consiguiente, ordeno a todos los ciudadanos y ciudadanas de Euskadi, particulares y autoridades, que la guarden y hagan guardarla.

Vitoria-Gasteiz, a 4 de diciembre de 2006.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.